



## University of Utah Singers abesbatza garaile, Europako Sari Nagusian

**TOLOSA** ▶ Jende ugari bildu zuen Abesbatzen Sari Nagusiaren 18. edizioak Usabal kiroldegian atzo

**PARTAIDEAK** ▶ Turkiako Bilkent University Youth Choir abesbatzaren baja izan zuen lehiaketak ▶ 6



Estatu Batuetako University of Utah Singers abesbatzako kideak garaipena ospatzen. JAIONE ASTIBIA



JAIONE ASTIBIA

## Urte osoko lanari saria Sanjoanetako Azokan

**TOLOSA** ▶ Kaxi Izagirre, Miren Agirrezabala, Eugenia Agirretxe eta Pilar Unanue izan dira Azoka Bereziko irabazleak ▶ 4-5

**VILLABONA** ▶

**Ehunka  
lagun 18/98  
auziaren  
aurka**

Manifestazioa egin  
zuten atzo goizean ▶ 5

IGANDEA 18

IBARRAKO  
**GAZTE FESTAK'06**

GOIZETIK GAUPASEROEN POTEOA  
14:30 GAZTE BAZKARIA XEPLAN  
17:30 MINIMOTO ZIRKUITOA  
21:30 KONTZERTUA GAZTETXEAN  
HABEAS CORPUS (GRATIX)

I.G.A.

**MIKELAN**  
LAGUNTZA  
TEKNIKOAK

Elbarri eta 3. adin-erako  
bilatzen zenuen guztia!

- Gurpil-aulki elektrikoak
- Gurpil-aulki manualak
- Garabi elektrikoak
- Eskailerak igotzeko aparatuak
- Ohe artikulatua elektrikoak
- Bainurako laguntza teknikoak
- 3. adinerako materiala
- OSAKIDETZA-rekin hitzarmena
- Mantenimendu TAILERRA
- ALOKAIRU zerbitzua



Laskibar Industrialdea 19 Pab. 3-01 20270 IRURA

Tel.: 943 69 22 65 · Faxa: 943 69 43 89

posta eletronikoa: [mikelan@mikelan.com](mailto:mikelan@mikelan.com)

[www.mikelan.com](http://www.mikelan.com)

UZTURRETIK ▶ KRISTINA URRUTIA

## 'Chocolate ice-cream'



**U**daberrian sartu ginela iragarri ziguten, ederki iragarri, gainera. Gogoan baduzue, behintzat, albiste eta guzti egin baikenuen urtaro aldaketa.

Eta egunotan beste urtaro batera salto egiteko prestatzen ari gara. Gutxi geratzen zaio 2006ko udaberriari, baina apenas esan diogu agur eta udak harripatu gaitu. Ez da data ofizialera iritsi oraindik, baina ederki nozitu ditugu dagoeneko uda giroko bero sapak, freskura eskasiak eta lo egin ezinak. Euskal herrian ez da beroaldiaz ihes egin duen txokorik. Hor joan dira 30-35 graduko egunak. Lur soroak gorri-gorri eta ximelduta, autoak labe itxura hartuta eta hiritarrok beroak boteak. Horixe eguno-

tako Euskal Herriko panorama. «A ze udaberri amaiera!... Izango al du ba akaberarik honek? Segida besterik ez motel, orain uda dator eta!!», esan diote elkarri bi gizonzokok kalean gora doazela.

Helatu postura iritsi dira eta «txokolatezkoa» eskatu du batek... «Txokolatea?», galdetu dio besteak harrituta, «ez al diagu ba nahikoa txokolate azkenaldian! Batzuk elkar ezin hartuz... eta besteak udaberriaren antzera, erabateko amaierarik eman ezinda

beroaldiari...». Esaldia bota orduko eman dio erresponentsua ondokoak. Hobe izanen da badaezpada ere *txokolatea* urtu baino lehen dastatzea, bestela azkar iritsiko dira hemen dauak.

Aitona Joxek esan ohi zuen bezala egin beharko dugu, «ekatzu frexkue!» esaten zigun, eta gero gu hari begira egoten ginen. Hura gozatua hartzen zuen!... Hark adina gozatzen badugu guk ere txokolate honekin, ez gara gaizki izanen.

ASTEKO IRUDIA ▶

## Otaegirentzat txapela Urrezko Aizkolarian

Bi eskualdeetako batean geldituko zen txapela. Izan ere, Joseba Otaegi zizurkildarra eta Jon Rekondo leitzarra izan ziren aurrez aurre Azpeitian, Urrezko Aizkolaria Txapelketako finalean, 23 urte azpikoen mailan. Adituen iragarpenak, baina, ez ziren bete. Rekondo jotzen zuten favorito, baina azkenean Otaegik hartu zion aurrea leitzarrari, eta txapela Zizurkilera joan zen. «60 ontzakoan adarra atera zitzaidan, baina parean bukatu nuen proba hori, eta hor ikusi nuen aukerak nituela irabazteko. Ez nuen ezer galtzeko, eta jokoan sartu nintzen», azaldu zion zizurkildarrak HITZARI. Rekondok, berriz, ez zuen bere lana oso gustura egin, «baina gaizki ere ez. Ez nintzen nerbio askorekin aritu», zioen, finala gogoratzean. Argazkian, Joseba Otaegi, hunkituta, lorpena ospatzen. JON URBE / ARGAZKI PRESS



**Eskaintza magikoak Citroën-en**

**citroën C4 12.000 €** (ze errenta) (ze errenta)  
Ela gainera C4 Collection Pack 14.200 € (ze errenta)

Hil honetan aurkitu prezio apartak:

**citroën C5**

**17.300 €** (ze errenta)  
Ela gainera C5 160 Collection 19.200 € (ze errenta)

**citroën C5**

**12.200 €** (ze errenta)  
Ela gainera C5 160 Pack 14.200 € (ze errenta)

**citroën C1**

**8.100 €** (ze errenta)

**citroën C2**

**8.700 €** (ze errenta)

**citroën C3**

**9.000 €** (ze errenta)  
Ela gainera C3 Collection 10.200 € (ze errenta)

**IROVI, S.A.** Citroën Konzesionario Ofiziala  
Industrialdea z/g. Tel.: 943 65 18 42. Anoeta / Tolosa

**CITROËN**

TOLOSALDEKOHITZA.INFO >

Zergatik da garrantzitsua HITZA ordaintzen jarraitzea?

Hemen denak ordaintzearen alde ageri dira, eta ni ere bai, baina komentario txiki bat ere egin nahiko nuke. Ez dago zalantzarik HITZAK aurrera egingo badu denon laguntza beharrezko duela, bai erakundeena zein pertsona partikularrena. Erakundeak aipatu ditudanez, esan dezadan eskualdeko zenbait Udalek HITZARI diru laguntza ematen diotela eta beste batzuk, aldiz, ez. Beraz, eta betiere nire uste apalean, ez zait zuzena iruditzen herri batzuek ordaintzea eta beste batzuek ez, eta horren aurrean HITZAKO ardura-dunek ezer ez egitea. Esate baterako, ordaintzen ez duten herrietako biztanleek ordaintzen duten herrietakook adina diru ordaindu behar dute eta, hori gutxi balitz, HITZAN informazioa berdin-berdin eskaintzen da herri horiei buruz. Uste dut HITZAK neurriren bat hartu beharko lukeela nolabait herri horiek presionatzeko.

ekartzeko eskatuko nieke. Dirua eskatuz gaur jaso dut gutuna, baina egunkaria bera kaleko okindegi batean jaso beharra daukat, banatzaileak gure etxera bidean dagoen aldatxoa ezin duelako nonbait igo.

LEON > ORDAINDU BAI, BAINA ETXERA EKARRI, MESEDEZ

Lehenago egunean entzun nion emakume bati HITZA garestia iruditzen zitzaiola eta batzuetan bizilagunari kentzen ziola buzoitik. «Total, askotan ez dira etxean egoten, eta!», esan zuen, altu-altu, kiroldegiko aldagelatan. «Garesti?», pentsatu nuen. «Joe, emakume, *Diario Vasco* edo beste edozein egunkari edo aldizkari egunero erosten dituzunen ez duzu protestatzen, ba! Eta kalkulatzen baduzu urtean horrek balio duena...». Urtean 50 euro, egunean zentimo batzuk. Ikusi aldea. Eta, gainera, euskaraz jasotzen dituzu albisteak. Hala behar duelako izan, nire hizkuntza delako. Eta, gainera, bizilagunari kentzen diola... Gero normala besteari ez iristea, horrelako asko badaude! HITZA etxean nahi duenak ordain dezala. Eta ez badu nahi eros dezala nahi duena eta utz dezala bere lekuan besteona. Guk, ordaindu dugunok, baloratzen dugulako etxera ekartzen ditugutena.

NEREA > GARESTI?

Niri iruditzen zait denon laguntza behar dutela euskarazko

hedabideek. Gurea, partikularrena. Eta batez ere erakundeena, gure dirua baita hori ere. Denon artean presionatu behar ditugu instituzioak jarrera alda dezaten. Oso diru gutxi ematen dute. Eta hori ez da euskararen alde egitea. Tolosaldean ere badaude hainbat Udal dirua ematen ez dutenak. Zergatik? Akaso gero ez al dute nahi beraien herriko albisteak irakurtzea? Bai horixe, eta besteak bezala ateratzen ditu HITZAK. Udal horien aldetik errespetu falta iruditzen zait HITZAREKIKO. Eta laguntzarik eza euskarari. Gure hizkuntzak zerbait gehiago merezi du.

IÑAKI > ERAKUNDEEI PRESIO EGIN

Tolosako Gerontologikoari buruz

Orain Udalak, bat-batean, proiektu bat aurkeztu du. Nola ulertzen da Gerontologiko zaharra itxi, eta orain hutsik egonik, beste egoitza bat moldatu behar dutela Gerontologikoa jartzeko? Ez al da alferrrikako gastu bat? Erantzuna emango al dit norbaitek?

>

Ez dakit erantzuna den, edo hausnarketa bat... Baina ni zure iritz berekoa naiz. Aldundiak, Udalaren babesarekin,

Gerontologikoa itxi zuen. Defizitariora zelako. Diru asko gastatzen zelako alferrrik, alegia. Eta orain beste zentro bat ireki du Udalak? Noren diruarekin? Aurrekontuetan, behintzat, ez dut uste aurreikusten zutenik horrelakorik! Eta Diputazioak diru hori emango du? Eraikin bat lekuz aldatzeagatik hainbeste diru bota? Ez dut uste. Nire inpresioa da Udalak boto asko galdu zituela Gerontologikoa itxi zuenean, eta orain, hauteskundeak gerturatzetan ari direla, boto horiek berreskuratu nahian dabilela. Proiektu hori proiektu izango da hauteskundeak iritsi bitartean. Eta gero, zer? Ez da existitutuko. Larria da egoera, baina badirudi gure adinekoek ez dutela ezer balio...

>

Zer duzu gustuko eta zeren falta sumatzen duzu herriko jaietan?

Nik sanjoanetan, adibidez, herriar gazteen parte-hartze handiagoa botatzen dut faltan. Egia da azken urte hauetan goruntz doala San Juan eguneko ekitaldietan parte hartzen duen gazte jende kopurua; baina, hala ere, nire ustez gehiago bultzatu beharko lirateke festa hauek gazteen artean. Oso fes-

ta polita iruditzen zait San Juan eguneko eta baita koadrilaren eguneko ere. Ni joan den urtean atera nintzen lehen aldiz eskopeteroz, eta aurtentz dukarik gabe errepikatuko dut. Mantendu eta zain ditzagun herriko festak! Eta txosnena arrazoi osoa dakazue, jarri beharko lituzkete.

MAIDER > SANJOANAK

Maidera, arrazoi duzu. Baina iruditzen zait, gainera, Tolosan orokorrean ikusten dela gazteen parte-hartze eskasa. Beste herrietan gehiago inplikatzeko direla uste dut, hemen gehiago kostatzen zaigu denon artean elkar ezagutu, elkartu eta gauzak batera antolatzea. Zergatik ote? Bestetik, aprobetxatu nahi dut batel estropadak berreskuratu dituztenak zoriontzeko. Eta, batez ere, gazteen lana azpimarratu. Erakutsi dute egin daitezkeela gauza politikak elkarrekin. Kristoren giroa jartzen dute, gainera. Ni, behintzat, igande honetan eta hurrengoan izango naiz Oria ibaiaren ertzean!

BATEL ESTROPADAK >

Lehenago urteko kriteriuma, aurrekoekin alderatuz, nahiko desastrea izan zen, ibilbidean zehar bozgoragailurik ez zegoelako eta afizionatu mailako proba egon ez zelako; azken finen, kategoria hau baita ikuskizuna ematen duena. Ea aurtentz gaiza horiek hobetzen dituzten zaletuen gozamenarako.

TXIRRINDULARITZA KRITERIUMA >

ESANAK >

IZEBA PILARREN ILOBAK ANOETAKO MUSIKA TALDEA

«Nezakalpunk definizioak nahikotxo islatzen du taldearen giroa. Bakoitzak askotariko musika entzuten badugu ere, denok batera musika egiterakoan, punk-a ateratzen zaigu»

«la gure kantu guztiak salaketa kantuak dira. Horietako asko

injustizien aurka sortu ditugu. Gertutik ukitzen gaituzten gaiak dira gehienak»

«Guk ez dugu taldea negozio bezala bizi, musika eta mezuak zabaltzeko sortua izan baita Izeba Pilarren Ilobak»

'Gara (Xirika)', 2006-06-01



Izeba Pilarren Ilobak taldeko hainbat kide; ezkerretik hasita: Luixa (bateria), Drogax (baxua) eta Adur (gitarra); Gorka (eztarria) falta da. GARAZI AZKUE

iragarki laburrak >

LANPOSTUAK

**Langileak.** Bergaran, Hernanin eta Errenterian honako lanpostuak bete behar dituzte: mantenimenduko peoiak, garbitzaileak, askotariko zerbitzuak, lorezainak. 943 31 37 82. **Mantenimendua.** Igeltseroak,

arotzak, elektrikariak, gidariak. Udaletarako behar dira. 943 31 37 82. **Haur hezitzaileak.** Plaza finkoak betetzeko lanpostuak libre. Informazioa doan. 943 31 37 82. **Harreragileak, telefonistak.** Plazak

libre. Eskola Agiria dutenetik aurrera. 943 31 37 82. **Agiritegietako laguntzaileak.** Arrasate, Bergara, Donostia, Soraluze eta Igorriarako behar dira. 943 31 37 82. **Osakidetzak.** Plazak libre: teknikariak,

laborategiko laguntzaileak, erizain laguntzaileak, zeladoreak. Informazioa doan. 943 31 37 82. **Sukaldariak.** Erixeetako jatebeetarako behar dira. Informazioa doan. 943 31 37 82. **Gidariak, txoferrak.** Plaza libreak

betetzeko hurrengo deialdietarako. 1.800 euro hileko. 943 31 37 82. **Peoiak.** Lorezainak, elektrikariak, iturginak, langileak, kontserjeak, udaletarako gidariak. 943 31 37 82.



SANJOANAK ▶

# Sanjoanetan, jaki osasungarriak

Sanjoanetako Azoka Berezia izan zen atzo produktu ekologikoenarekin batera; posturik hobereenek sariak jaso zituzten; 3x3 Saskibaloi Txapelketa ere izan zen



**Azoka ekologikoa.** Baserriko produktu ekologikoak izan ziren izarrak, besteak beste. ARGITZ. XABIERA

### JAIONE ASTIBIA

Sanjoan sua helduko da laster, utzirtuak uxatzeko; bitartean, eta urte gutxian, noski, gorputza osasuntsu edukitzeko, kirola egin eta jan-edana egoki egitea bezalakorik ez! Horretarako aukera paregabea izan zuten atzo, egurakid bikiak izan zuten. Tolosara bertaratu ziren ehunka lagunak. Sanjoanetako Azoka Berezia, produktu ekologikoenarekin batera izan baitzen.

Goiz-goztekin postuz bete ziren San Frantzisko pasealekua eta Triangukoa. Aurrenekoan, Euskal Herri osotik ezzezik, Ertxotatik (Espainia) etortirako 22 ekotzkie ekologikoren postuak ere jarri zituzten. Urte gutxian zehar aurkitzen zail diren hainbat eta hainbat produkturen eskaintza zabala eginez, gazi nahiz gozo, gordirik nahiz prestatuta, ikusitako erositako eta datatzeko ere au-

keru baten; baserrian oso-osoan modu naturala landutako barazkiak, ardo ekologikoak, gozokiak, sukailaririra ekologikoak jakiak...

Atzoko azokan, larunbatetako ohiko produktuez besteak beste ageri ziren postuak; hauek ere, besteak bezain ikusgarri eta produktibo berei askoak eskalari. Hain zuzen ere, zerkausian lanean aritzen diren postuen artean, barazki eta frutarik hoberenak eskaintzen dituztenen sariak eman zituzten; berriak te handieneko postuak eta postu politenari bezala.

Bestealde, gara hasietan ohikoa den moduan, 3x3 Saskibaloi Txapelketa jokatu zen atzokoan. Goizean, Foruen Ertoridien egokitalako sei partidan, gazteoen txanda izan zen; alabietan Laskorainek irabazi zuen Iraurgi taldearen aurkako finala eta infantiletan, beriz, Bruesa Tolosak irabazi zuen sagundiak izeneko nesken taldearen aurkako finala. Arratsaldean, helduen norgehiagokak ikusitako parada izan zuten San Frantzisko pasealekura gerturatu zirenak.

### SARIAK ▶

Lau arlotan banatu dituzte sariak urte osoan egindako lanagatik.

### AZOKA BEREZIA

**Barazki posturik hobereena.** Lehenengo postuan, Kaxi Izagirre (Ibarra); bigarrenean, Maritu Eraso (Leobona).

**Fruta onena.** Lehenengo postuan, Miren Agirrezabala (Gabiña); bigarrenean, Merve Zugasti (Itzategi).

**Barietate handieneko postua.** Lehenengo postuan, Eugenia Agirre (Borro); bigarrenean, Erezilgo Azoka. **Posturik politena.** Lehen postuan, Pilar Unamue (Urretzi); bigarrenean, Maria Luisa Zurirain (Aldizbur).



**Sanjoanetako azoka.** Ohiko perretxikoen postua, zainzuri baselikin, i.a.



**3x3 saskibaloi.** Goizean zehar gazteoen banda izan zen, i.a.

IBARRA ▶ KULTURA



GAZTELU ▶ SOKATIRA



**Arresok laugarren egin zuten**

**Nerea Lizartza** ▶ Gasteiako Udakaldeginduta Euskal Herriko Sokatira Txapelketako kanporatzea jokatu zen atzo Gaztelan. Zarpi talde aritu ziren lehian eta horien artean Nuarbe nagusitu zen. Arresoarrak laugarren gelditu ziren sailkapenean. AL. LIZARTZA



VILLABONA ▶ POLITIKA



**18/98 epaiketaren aurka**

**N. Urbizu** ▶ Eskubide zibil eta politikoen aldetik 18/98 epaiketarik ez izateko Villabona kale nagusiak zeharkatu zituzten atzo ehunka lagunak. Goizean gosaria egin zuten, eta baita umeetarako birziklapena erabiliz musika sortzeko talerra ere ezutu. NERKA URSUA

### badugu GILTZA, badugu HITZA

**hitza**  
 Giltza entregatzeko lekua.

- ▶ ANOETA Izuri Txakaldegia
- ▶ LEITZA HITZaren egitza
- ▶ IRURA Amets ez-tanaka
- ▶ TOLOSA HITZaren egitza
- ▶ VILLABONA Lampa kafe-egitza
- ▶ ALEGIA jubbibuen taberna

**ELEKTRIZITATEA**  
**MENDIA**  
 Euskal - Herria, 27  
**IBARRA**  
 Tel. 943 67 32 80

15 egunetako bidaiek **AUTOBUSEZ** eta **KANPINETAN**

<b>Eslovenia-Croacia</b> Ereanek 30 - Urteak 18 390€tik aurrera	<b>Bretaina</b> Abuztuak 1 - 15 430€tik aurrera	<b>Txekia</b> Abuztuak 1 - 15 390€tik aurrera
<b>Maroko</b> (hoteletan) <b>EUSKARAZ</b> Ereanek 30 - Urteak 16 <b>530€tik aurrera</b>	<b>PREZIOAREN BARNE:</b> Gasteiako kanpinetako eta hotelakotako egunekoak, bistak, asagunak, gida koordinatzaile bati.	<b>Kortsika</b> Abuztuak 16 - 21 390€tik aurrera

Sagardo Itzulia 28 Donostia, Tel. 943 29 70 25 [www.kulturbidaiak.com](http://www.kulturbidaiak.com) Gasteiako 15. kateko 10. pisua

**adoberriko eshantza handia**

PortAostera **188**

Stranduzko bilu eta... **105**

Playa de las Americas **452**

Calcifloria Apartamentak **65**

**48**

**TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA** 2006 Harpidetza kobraketa kanpaina

- ▶ **egunero 8 orrialdeko kalitateko egunkaria, euskaraz**
- ▶ **uneoro informazioa eskura [www.tolosaldekohitza.info](http://www.tolosaldekohitza.info)**

**KONTU KORRONTE bidez ordainduaz EROSOAGOA eta 2 ZATITAN ORDAINTEZKO AUKERA**

bartel berriarekin abantailak! beharpenak agurretan, eskeletan eta iragarki laburretan besteak beste

**egunean 0,18 zentimoren truke etxean**

MUSIKA ▶

# Unibersity of Utah Singers abesbatzak irabazi du 18. Europako Sari Nagusia

Turkiako Bilkent University Youth Choir abesbatzak kale egin zuen, eta azkenean lau izan ziren parte-hartzaileak Usabalen, entzulegoaren txalo beroak jasoz



Atzoko irabazleek 673 puntu jaso zituzten. Gehienez ere, 700 lor zitezkeen. JAIONE ASTIBIA



Cantemus Children's Choir-ek zuzendariarekiko eta entzuleekiko harreman hurbila erakutsi zuen. J. ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA-NEREA URBIZU

University of Utah Singers abesbatza estatubatuarrak irabazi zuen, atzo, Usabal kiroldegian eginko 18. Abesbatzen Europako Sari Nagusian. Maila altua erakutsi zuten lau parte-hartzaileek; izan ere, hasiera batean, 5 abesbatza egon behar baziren ere, Turkiako Bilkent Youth Choir-ek kale egin zuen azken unean «arrazoirik eman gabe». Ondorioz, hurrengo bi urteetan ezingo dute lehiaketan parte hartu.

University of Utah Singers, abesbatza irabazlea hain zuten, izan zen abesten lehena. Zazpi kanta eskaini zituen, horietatik sei, kutsu erlijiosokoak. Maila ona erakutsi zuen taldeak, indartsuena izan ez arren, eta egitarauaren aldetik, XX. mendeko asko eskaini zituen, originalenetakoak izanik. Pianoa, eta perkusioko tresna batzuk erabili zituzten kantu batzuetan, eta euri-jasa izan zen berezietakoa, ahotsekin efektu bereziak sortuz. Jabier Busto konposatzaile euskaldunaren *Agur Maria* abestu zuten. Jantzera asko zaindu zuten, baita neskek zeramatzen osagarriak ere.

Abesten hurrengo 20 aho-tsez osatutako Hungariako

Victoria Chamber Choir izan zen. Indar handia erakutsi zuen talde honek, dinamika aldaketak asko nabarmenduz, eta abestiak sentimendu handiarekin transmitituz. Eskaintako Bogoroditse Devo musikariaren *Ave Maria* oso txalotua izan zen, eta, orohar, maila bikaina erakutsi zuten arren, estetika izan zuten kontrako alderdia, partiturrekin atera zirelako, besteak beste.

Hurrengo abesbatza, neska-tzez osaturiko Cantemus Children's Choir, ere Hungariatik etorri zen. Entzuleen aldetik txalo zaparrada handia jaso zuten. Lasaitasunez burutu zuten euren emanaldia, eta afina-zioa ere ederki landua dutela agerian geratu zen. Franz Biebl-en *Ave Maria* abestu zuten, entzuleen artean gogoko suertatu zelarik.

Azkenik, lehengo urtean Tolosako Abesbatzen Lehiaketan lehen saria eraman zutenak aritu ziren, baina ez zuten egitarauarekin asmatu, serioegia baitzen besteen ondoan.

## Usabaleko giroa

Leidor aretoaren lanak amaitu ez direla-eta Usabal kiroldegian izan zen azkenean Sari Nagusia. Bertaratuen artean egiten zuen beroa izan zen hizpide, baina baita bertan abesbatzarik onenak kalitate onean entzuteko aukera ere; izan ere, akustika «nahiko ona» izan zen. Ia osotara bete zen, eta hiru orduz jendeak errespetua erakutsi eta, isiltasuna gorde zuten.

Abesbatza guztiak garaikurra jaso zuten, eta estatubatuarrek eraman zuten txapela. Euren poza nabaria zen, bai epaia jakitean, baita Usabalek atera zirenean ere, zuzendariak bizkar gainean bukatu zuelarik.

## Abesbatza Lehiaketekiko konpromezua

**Erredakzioa** ▶ Vitorio Brancati, Gabor Toth, Boris Kornovski eta Jokin Bildarratz, Gorizia, Debrecen, Varna eta Tolosako alkateek eta ordezkariak akordioa sinatu zuten atzo, XVIII. Europako Abesbatzen Sari Nagusiaren harira. Lau herrialde horietako eta Arezzo eta Tours-eko lehiaketetan eginko lana eta Europako Parlamentuko Presidentearen laguntza eskertu zuten, aurrerantzean erakunde babesa handiagoa izan dadila eskatuz, eta Abesbatza Lehiaketekin jarraitzeko konpromezua hartu zuten. HITZA

## iragarki laburrak ▶

### SALGAI

**Pisua.** Leitzan 100m2ko pisua salgai. Igoailua eta trastelekua.

Eguzkitsua. 699 46 13 65.

**Etxebizitza.** Etxebizitza salgai, Berrobin. 29 milioi eta erdi, negoziagarria. 618 83 32 56.

### LANA

**Neska.** Udan lana egiteko neska eskaintzen da. 660 78 42 37.

### Sukaldari laguntzailea.

Amasan, sukaldari laguntzailea behar da asteburuetarako. 943 69 12 10.

### OPARITZEKO


**Txakurkumea.** Txakurkumeak (arratoi txakurrak) oparitzen dira. Deitu 618 25 49 71 zenbakira.



ondo para jaietan!

**Izarti**  
txokolategia

Sortalde, 1 • ANOETA • Tel.: 943 65 19 93



### VILLABONA:

Apartamentua. Eraikuntza berria. Informazio pertsonala.

### VILLABONA:

2 logela. 35.000.000 pzta.

**ASTEASU:** Guztiz eraberritua. Primerakoa. 36.500.000.

**IRURA:** Promozio. 125 m2-ko pisua eta garajea. 51.000.000 pzta. Aukera aparta.

### TOLOSA:

San Francisco. 113 m2-ko pisua eta garajea. Informazio pertsonala.

**TOLOSA:** 80 m2. Erdialdean kokatuta dago. Hormigoizko etxea 31.000.000 pzta.

**IBARRA:** 3 logela, egongela, sukaldia, bainu gela, trastelekua eta bi balkoi. Erabat berritua.

**Errota 3 - Villabona**  
943 243 118 - 635 706 728

MARIA JUANA RIVAS GOGORZA ▶ ARGENTINARRA



# Argentinatik Orendainera

Argentinarra da Maria Juana Rivas Gogorza; egunotan, ordea, eskualdean izan da bere arbasoen bila

MADDI SOROA

**A**rgentinatik Orendainera senitartekoan bila etortzeko emakume indartsu baten historia dugu honakoa. Amak hil aurretik kutxatxo batean utzitako bi argazki zahar eta izen-abizenek osaturiko zerrenda xumea eskuan zuela, ilusioz eta desioz beterik iritsi da Maria Juana Rivas Gogorza Orendainera. Helburu bakarra zuen, amak txiki-txikitatik esandakoa betetzea, Euskal Herrira etorri eta bere sendiaren euskal arbasoak aurkitu eta ezagutzea, hain zuzen ere.

Esan eta egin. Duela egun batzuk iritsi zen Rivas Gogorza Orendainera. Ondo asko ikasia zuen Euskal Herriko geografia, baita jakin ere zuzen-zuzenean bertara iristen. Izen-abizenek osaturiko papera eskuan zuela bertako udaletxera joan eta idazkariarekin hitz egin zuen. Bere amona zena bertakoa zela

eta ondo asko zekien nora joan behar zuen. Idazkariak segituan ezagutu zuen zerrendan zegoenetako bat, Lizartzako Ermenejildo Irazu Gogorza, alegia. Ordu gutxiren buruan, burutua zuen bere ametsa Rivas Gogorzak. Amari hainbeste aldiz entzundako esana bete zuen, lortua zuen hainbeste kostatako bidaia egin, Orendain eta Lizartza zapaldu eta arbasoekin topo egitea.

Rivas Gogorzak Orendaingoa zuen amona, Juana Francisca Uranga Ugartemendia; aitona, berriaz, Lizartzakoa, Miguel Gogorza Zeberio. Gerra Karlistan Argentinara joandakoak ziren biak ere, bertan ezagutu eta segituan ezkondu zirelarik. Egun gure artean ez diren arren, haien ondorengoak ezagutzeko parada, ordea, izan du argentinarrak. Bestek beste, Lizartzako Ermenejildo Irazu Gogorza, Zaldibiko Maite Irazu Gogorza, eta Tolosako

## ARBASOAK

«Gure amak txiki txikitatik sartu izan dugu euskal herrira etorri eta gure arbasoak ezagutzeko desioa»

## ESPERIENTZIA

«Sekulako esperientzia izan da, oso pozik nago nire familiaren zati bat aurkitu dudalako, bidaia merezi izan du»

## MAIATZEKO PLAZA

«Ez gara inoiz errendituko, justizia eta egia nahi ditugu, gurean jarraituko dugu gure seme-alaben alde»

Txaro eta Patxi Irazu Gogorza, guztiak ere argentinarraren amaren lehengusuen seme-alabak. Amaren lehengusurik ezin izan du ezagutu, zenduriko belaunaldikoak direlako guztiak; hala ere, haien base-riak eta bizitokiak ezagutzeko eta bisitatzeko aukera izan du.

Gustura eta pozik geratu da Rivas Gogorza Euskal Herrian igarotako egunekin. «Sekulako esperientzia izan da, oso pozik nago nire familiaren zati bat aurkitu dudalako», aitortu du argentinarrak, baita bidaia merezi izan duela azaldu ere. Izan ere, senitartekoak aurkitu eta ezagutzeaz gain, Euskal Herriko hainbat txoko bisitatu eta paisaiaz gozatu du, bere esana baita «euskal lurra ezagutu nahi nuen, paisaia berdea, basoak...».

Bere hitza eta desioa beterik, gauza bakarra nahiko luke orain, senitartekoak Argentinara bisitan joatea, alegia.

## Maiatzeko Plazako Ama

Ezin da ulertu Maria Juana Rivas Gogorza Maiatzeko Plazarik gabe, aitzitik, ezin da ulertu Maiatzeko Plaza Maria Juana Rivas Gogorzarik gabe. Semerik gabeko ama eta amarik gabeko semea ulertu ezin daitekeen bezala.

Maiatzeko Plazako Amen taldea 1977ko apirilaren 20an sortu zen, 1976ko martxoan hasitako diktadura militarren ondoren. Alfonsinoren gobernuaren martxan egon zen bitartean, 30.000 pertsonatik gora izan ziren atxilotuak eta desagertuak; horietatik hiru, Rivas Gogorzaren semeak. Ricardo, Marcelo eta Gustavo militarren atzaparretan erori ziren, torturatuak izan ziren, eta geroztik ez zen haien berririk izan. Rivas Gogorzari hiru seme lapurtu zizkion gobernuak, eta bera bezala, gauetik egunera atxilotuak, torturatuak eta desagertuak izan diren 30.000 lagunengana inguru dago Argentinan. Ez dakite zer gertatu zen seme-alabekin, ezta non dauden ere.

Egoera jasanezin horren ondorioz sortu zen Maiatzeko Plazako Amen taldea. Helburu nagusia «justizia eta egia bilatzea» dela baieztatzen du Rivas Gogorzak, «gure seme-alabak gaizkile zirela esaten baitzuten. Errudunak kartzelara joatea nahi dugu, eta gure seme-alaben gorpuak non dauden jakin».

Urte luzetako lanaren emaitza ari da apurka loratzen: gobernura sartzeko eskubidea berreskuratu dute, 30.000 lagunekin gertatu zeneren inguruko informazioa lortzen hasi dira... Lan ikaragarria izan da Maiatzeko Plazako amek egindakoa, baina are handiagoa barnean duten mina. Rivas Gogorzak borrokan jarraituko du beti; «ez gara inoiz errenditu, eta ez gara inoiz errendituko». ◀

hilberria ▶

**Pedro Jose Iparragirre Aldanondo**

Atzo hil zen, Idiazabal, 87 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

—Golan bego—

Bere emaztea: Maritxu Mendizabal; seme-alabak: Josebe, Maria Nieves eta Javier, Marga eta Kepa, Koro, Antton, Paki eta Jose Mari; bilobak: Asier, Aitor, Amaia, Ane, Eduarne eta Asier, David, Leyre, Maite eta Jone; ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusua eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoi bat eskatzen dizueetea arren etor zaitezte! GAUR IGANDEA, arratsaldeko ZAZPIETAN, Idiazabalgo San Migel Goiaingeruaren parroki elizan, gorpua bertan dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

hilbidea ▶ Maugia baserria

**IDIAZABAL**, 2006ko ekainaren 18a

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

## Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

**ESKELAK**  
19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.nfo



Harpidedunei banatua ▶ 2006ko ekainaren 18a, igandea ▶ IV. urtea

GAURKO EGURALDIA

goizez

arratsaldez

beroena

21

hotzena

17

goizez

arratsaldez

BIHARKO EGURALDIA

goizez

arratsaldez

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA

(zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko...)

943 30 43 46

**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Tolosa.** Emakumeen Mundu Martxako Plataformak deituta, batzarra, bihar 20:30etan, Kultur Etxean.

**JAIAK**

**Anoeta.** Egitarau ofiziala: 11:00etan, kalejira; 11:30ean Eresargi abesbatza; 12:00etan, sagardo dastaketa; 17:30ean herri kirolak; 19:30ean Alurr-en saioa plazan. Herri Borondatearen Aldeko Jaiak: 13:00etan dantzariak, txalapartariak eta EHNA tramitatzeko aukera; 21:00etan, afaria; 23:00etan umoristak eta ondoren, musika.

**Ibarra.** Gazte Festak: 08:00etatik 14:00etara, gaupaseroen poteoa; 14:30ean, gazte bazkaria Xeplan; 17:30ean, minimoto zirkuitoa; 21:30ean Habeas Corpus Gaztebean.

**Tolosa.** Sanjoanak: 09:30ean, Beotibarren, XV. San Joan Zesta-puntako Txapelketa; 10:00etan Triangulon, XXXIII. Nazioarteko Xake Lehiaketa; 12:00etan batel estropadak; 17:00etan XVII. Kimu futbol finalak; 18:00etan Txirringulari Criterium-a, San Frantzisko ibiltokian.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**

Ibarra. Ugarte, M.T. Euskalerría, 46. 943 67 32 74

Leitza. Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112

**Bihar**

Ibarra. Iturrioz, I. Euskalerría, 3. 943 67 09 15.

Herria. Gimeno, A. Elbarren 52. 112.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# Jaiak amaitzear

**ANOETA-IBARRA ▶** Atzokoan ere festa giroa izan zen nagusi eskualdeko bi herrietan; gaurko egitarau oparoa prestatu dute festei amaiera emateko



Ibarran mus txapelketa jokatu zuten. NEREA LIZARTZA




Anoetan kalejira egin zuten. NEREA LIZARTZA



Frontoian pailazoak aritu ziren. N. LIZARTZA

**AGURRAK ▶**



**ZORIONAK**

Jose Mari Agirre eta Juanita Luluaga (Altzo). Ekainaren 7an 50 urte elkarrekin. Zorionak. Urteetan aurrera baina bihotza gazte! Muxu bat bioi eta ondo pasa eguna.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker.  
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

**hitza**  
agurren tartea



**URTE ASKOAN**

Axier eta June Tejeria Larrarte. Hiruna muxu handi familia guztiaren partetik, batez ere Manexen partetik.

**NEREA LIZARTZA**

Festa nahi zuenak bazuen atzokoan. Ibarra, esaterako, mus txapelketarekin ekin zioten eguneko egitarauari; zortzi bikote aritu ziren saria lortzeko lehiak. Ondoren, Mase magoaren erakustaldia ikusteko parada izan zuten bildutakoek. Era berean, txokolatea hartzeko eta tortilla jateko aukera ere izan zen. Arratsaldeari amaiera emateko, Alurr dantza taldearen ikuskizuna eta bertso poteoa izan ziren.

Anoetan Herri Borondatearen Aldeko Jaien baitan gazteen kalejirarekin ekin zioten egunari; ondoren, herri afaria eta gazteen dantza emanaldia izan ziren. Jai ofizialetan, pailazoak aritu ziren haurrak alaitzen. Helduentzat bailarako bakailao lehiaketa izan zen; ondoren bertsolariekin herri afaria egin zuten. Gaur ere festa izango dute nagusi.

**hitza** Harpidedunen txokoa

**Aisialdi planik ez duzula? HITZAK aukera paregabea emango dizu**

1 Bidaia zoragarri bat Tenerifera 2 lagunentzat  
2 Luxuzko otordu berezia Tolosako Zumeta Jatetxean

**Ez galdu aukera! Egin zaitetz harpidedun ordaintzaile!**

**PARTE HARTZEKO:** Maiatzaren 30etik ekainaren 25era argitaratzen diren boko hauetako bat, zure datuekin bete eta bidali ondoko helbide honetara. **Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza • Araba etorb. 5 • TOLOSA**  
Ekainaren 26an irabazlearen izena HITZAN **ZORTE ON!**

Zozketan parte hartzeko beharrezkoa da harpidedun ordaintzailea izatea.

**1 TENERIFERA BIDAIA**  
2 lagunentzat astebeteko egonaldia

**2 OTORDU EDERRA**  
2 lagunentzako Tolosako Zumeta jatetxean

**bete zure datuak**

Harpidedunaren kodea.....  
Izena.....  
Abizenak.....  
Helbidea.....  
.....  
Herria.....P.K.....  
Telefonoa.....  
Pe.lektronikoa.....

**LAUTREK**  
bidaia agentzia

korreo kalea, 52 • TOLOSA  
Tel.: 943 67 39 99 - 943 67 39 21  
Faxa: 943 67 39 12  
zure neurriko bidaliak antolatzen ditugu

Berjaldegi Plaza, 2/g • Tolosa  
Tel.: 943 88 28 93